2014-3-11

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA ETA IBILALDIA EGUN BEREAN OSPATZEARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Guraso Elkarte agurgarriak:

Ikastolen Elkarteak bilaldia Euskal Eskola Publikoaren Jai egunera aldatzeko hartu duen erabakiaren harira prentsan zein sare sozialetan azaldu den informazioaren aurrean, argibide hauek eskaini nahi dizkizuegu:

-Ikastolen Elkarteak, Ibilaldiaren antolatzaileak, jai hori 2014ko maiatzaren 25ean ospatzeko asmoa zuen.

-Azaroan, Ikastolen Elkarteak Ibilaldiaren festa eguna ekainaren 1era aldatzeko asmoa jakinarazi zigun. Izan ere, maiatzaren 25ean Europako hauteskundeekin bat egiten zuen. Hori dela eta, Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren eguna aldatzeko eskatu zigun. Ezetz esan genien, ez geneukalako beste aukerarik eta ekainaren lehen igandea gure Jaiaren eguna delako, bere garaian asko kostatu ostean adostutako eguna, sasoiko jaien egutegia oso estua baita.

-Hilabete ondoren berriro bildu ginen beste gai batzuk jorratzeko, eta eguna aldatzeko asmorik ba al geneukan galdetu ziguten. Esan genien Ibilaldia egunez aldatzeko asmoarekin jarraitzen bazuten, beraiei zegokiela ekainaren 1a ez zen beste egun bat aukeratzea, ez genuelako egoki ikusten bi jaiak Bizkaian egun berean ospatzea.

-Egun, Ibilaldia Euskal Eskola Publikoaren jaiaren egunean, ekainaren 1ean, ospatzeko erabakia mantentzen du Ikastolen Elkarteak, ez omen daukatelako beste aukerarik. Ez ditugu baloratuko euren arrazoiak, ez baitagokigu Ibilaldiaren data finkatzea. Hala ere, ez litzateke lehenengo aldia izango Jai bat ospatuko litzatekeela europar hauteskundeekin batera, hala gertatu baitzen 2009ko Bergarako Euskal Eskola Publikoaren Jaiarekin.

- Publikoki esaten dute "aspaldi gainditu beharreko dikotomia zaharkitua" dela publiko-kontzertatu auzia. Dudarik gabe eztabaida honek ez du zentzurik. Europan zehar gertatzen den moduan, euskal hezkuntza sistemak ere behingoz aitortu beharko luke Euskal Eskola Publikoa izan behar dela hezkuntza sistemaren oinarrizko eta lehentasunezko ardatza. Euskal hezkuntza legeari buruz Eusko Jaurlaritzak abiatu duen eztabaidak gai hau behingoz ebaztea espero dugu.

Egoera honen aurrean jakinarazi nahi dizuegu Euskal Eskola Publikoaren Jaia, beti bezala:

- **Ekainaren aurreneko igandean ospatuko dela, 2014ko ekainaren 1ean aurtengoan, Balmasedan.**
- Euskal Eskola Publikoa ikaslegoaren euskalduntze prozesuaren eragile nagusia dela erakusteko toki aproposena izango dela.

- Guztiontzako murrizketarik gabeko kalitatezko hezkuntza berritzailea aldarrikatzeko espazioa izango dela. Gure Eskola, alegia.

Beti bezala, **elkarlanean jarraituko dugu gainontzeko hezkuntza-eragile eta sareekin Euskal Herrirako hezkuntzarik hoberena lortzeko,** Euskal Eskola Publikoa sistemaren ardatz izan behar dela defendatzen foro guztietan.

Bestelako argibiderik behar baduzue, jar zaitezte harremanetan zuen federazioarekin edo EHIGErekin.

Agur bero bat.



Carlos López Losada
Presidentea

2014-3-11

ACLARACIONES SOBRE LA COINCIDENCIA DE LA FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA CON EL IBILALDIA

Estimadas AMPAs:

Ante las diferentes informaciones aparecidas en prensa y en las redes sociales sobre la decisión de Ikastolen Elkartea de cambiar la fecha del Ibilaldia al primer domingo de junio, día en el que desde hace años celebramos la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, nos gustaría haceros las siguientes aclaraciones:

-Ikastolen Elkartea, organizadora el Ibilaldia, tenía previsto realizar dicha fiesta el 25 de mayo de 2014.

-En el pasado mes de noviembre Ikastolen Elkartea nos comunicó su intención de cambiar la fecha del Ibilaldia al 1 de junio, ya que el 25 de mayo coincidía con las elecciones europeas. Por ello, nos solicitaron que cambiáramos el día de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca. Respondimos que no, ya que no teníamos otra opción y el primer domingo de junio es el día de nuestra Fiesta, una fecha que no fue fácil de acordar en su día dado el apretado calendario que se da en esas fechas todos los años.

-Un mes más tarde nos volvimos a reunir para tratar otros temas, y nos preguntaron si íbamos a cambiar la fecha. Les hicimos saber que seguíamos opinando que, si tenían que cambiar de fecha de celebración del Ibilaldia, en cualquier caso, les tocaba a ellos escoger un día diferente al 1 de junio y que no veíamos conveniente celebrar las dos fiestas en Bizkaia el mismo día.

-A día de hoy Ikastolen Elkartea mantiene su decisión de celebrar el Ibilaldia el 1 de junio, aduciendo que no tiene otra opción. No entramos a valorar sus razones ya que no nos compete elegir la fecha del Ibilaldia. Sin embargo, no sería la primera vez que coincide una Fiesta con una jornada electoral europea, como sucedió con la Fiesta de Escuela Pública Vasca de 2009 celebrada en Bergara.

-En los comunicados de Ikastolen Elkartea dicen públicamente que el debate sobre pública y concertada "debería haberse superado hace mucho tiempo". Sin lugar a dudas es una polémica que no tiene sentido. Como ocurre en el resto de Europa, el sistema educativo vasco debe reconocer de una vez por todas a la Escuela Pública Vasca como eje vertebrador, fundamental y prioritario del sistema educativo. Esperamos que en el debate sobre la Ley de Educación Vasca que quiere plantear el Gobierno Vasco en esta legislatura este tema quede de una vez zanjado.

Ante esta situación os informamos de que como siempre la Fiesta de la Escuela Pública Vasca:

- **Se celebrará el primer domingo de junio, el 1 de junio de 2014 en este caso, en la localidad de Balmaseda.**

- Nos servirá para manifestar el papel de la Escuela Pública Vasca como el principal agente educativo en el proceso de euskaldunización del alumnado.
- Se convertirá en un espacio reivindicativo a favor de una educación de calidad, libre de recortes, innovadora e inclusiva. En definitiva, nuestra Escuela.

Por supuesto, seguiremos trabajando, como hasta la fecha venimos haciendo, con todos los agentes educativos y con otras redes en pro de la mejor educación para Euskal Herria, defendiendo que la Escuela Pública Vasca sea eje del sistema en todos aquellos foros en los que participemos.

Si necesitáis cualquier otra aclaración, no dudéis en poneros en contacto con vuestra respectiva federación o con EHIGE.

Recibid un cordial saludo.



Carlos López Losada
Presidente